

aditza badut

Hauteskunde flashak

Eskaera. Irrati publikoei, arren, ez gaitzaten gehiago endredatu eskola atarietako sondeoeekin. Uler bezate behingoz, kazetari-tertulianoentzat jostailu entretenigarri bezainbat direla guretzat aspergarri. Eduki pazientzia, datu errealak izan artean! Ez bezate ahantzi, ugari garaile inkestatzailerei batekoz beste erantzuten diegunak.

Duintasuna. Jo dezagun konstituzionalista deiturikoek porrot egiten dutela. Duintasun izpirik balute —za-



EGUNKARIA

Jose Mari Aznar, Radio Nacional de España.

Xabier Lasa

lantzan jartzekoa dena—, beretarren aldeko kanpaina orkestatuan prakak ere maileguan jarri dituzten hainbat kazetariak dimititu beharko lukete. Ordea, beldur naiz biharamuneko pilula irentsi eta gerra zibil mediatikoa-ren ofentsibari berrekingo diotela.

Koherentzi eza. Eta ausardia falta. Hori euskal nazionalista bati igarri zitzaion, J.C. Iglesiasek itaundu zuenean RN1 propaganda aparatoan. Iglesiasek solasa amaitzeko dio bere irratia beti dela inpartziala mezu ororekin; eta, hor non abertzaleak erantzuten dion ondo dakiela hori horrela dela, eta gainera, bera eta bere ama betidanik egon direla Gesto-ren mobilizazioetan (sic).

HAUTESKUNDE EGUNA. Ehunka profesional ariko dira lanean gaur iluntzean emaitzen berri eman ahal izateko

Bozketa emaitzen jarraipen zabala hedabide guztietan

ETB1 eta ETB2an sei orduko aldi bereko saio bereziak egingo dituzte

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

EAEko hauteskunde eguna iritsi da azkenean. Telebista eta irrati guztiek ikaragarritzko despliegia jarriko dute martxan saio bereziak egiteko. Madrilgo telebistek, esaterako, dozenaka langile bidaliko dituzte bozketa egunaren inguruko xehetasun guztiak ikusentzuleei gerturatzeko asmoz. T5, A3 eta TVE kateak Bilbon izango dira euren albistegi guztiak egiteko, eta iluntzean lehenengo datuak emateko. T5ko lan taldea Guggenheim museoan egongo da eta A3koa Euskalduna jauregian.

EITBn, berriz, 300 profesional baino gehiago mugiaraziko dituzte hauteskundeetako emaitzak emateko. ETB1en eta ETB2n sei orduko aldi bereko bi saio berezi egingo dituzte. Maddalen Iriartek eta Jaime Otamendik gidatuko dute lehenengo kateko saioa 19:50etik goizaldeko 01:00ak arte. Amaiera gisa, herriz herri egon diren emaitza ofizialak jakinaraziko dituzte. ETB2ko saiorako, bestalde, animazio birtualeko dekoratu bat diseinatu dute; dekoratu horretan emaitzak eta gobernu osatzeko formulak era ulergarri batean plazaratuko dira, Maribel Aizarna kazetariak heldu diren emaitzen berri emango duelarik. Bi kateetako saioetan, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzako eraikinean

LANGILE KOPURUA

Makina bat profesional.

EITBrako 300 lagun inguru arituko dira lanean: ETBrako 200dik gora, Radio Euskadira 50 eta Euskadi Irratira 40. Antena3 kateak 150 pertsona baino gehiago mugiaraziko ditu, Tele5k 100dik gora eta TVEk beste 100. Beste hainbat irrati eta telebista txikietan dozenaka langile egongo dira emaitzen berri ematen.

jarriko duten datu zentralarekin bat egingo dute zuzenean eta alderdi politikoen egoitzetan buruzagiek izango dituzten erreakzioak bilduko dituzte. Internet bidez ere, www.eitb.com webgunean ia-ia denbora errealean emango dituzte datu ofizialak.

Euskadi Irratian 40 profesional arituko dira lanean, 20:00etatik 01:00etara iraungo duen saioa eskaini ahal izateko. Jon Aizpuruak eta Edurne Telletxeak gidatuko dute saioa eta Mariaje Gerrak azaldu digunez «Europako korrespontsalekin konexioak egingo dituzte». Bihar goizeko 06:00etatik aurrera gonbidatu ugari izango dira Euskadi Irratian: Alberto Ansola, Sabin Intxaurrea, Jose Luis Elorza, Fernando Barrena, Xabier Gurrutxaga eta abar.

HAUTESKUNDEAK



ETB

Uxue Barkos, Jaime Otamendi, Maialen Iriarte, Maribel Aizarna eta Julio Ibarra ETBko aurkezleak.

Gonbidatu ugari kate guztietan

Egunean zehar, albistegietan, hauteskunde egunari buruzko informazioa emango dute, baina saio bereziak 19:30ak aldera hasiko dira kate gehienetan galdeketen lehenengo datuak emanez.

TELEBISTAK

ETB1. 19:50etik aurrera Jaime Otamendik eta Maddalen Iriartek aurkeztuko dute saioa. Xabier Barandiaran eta Xabier Aierdi irakasleen iritziaren laguntza izango dute aurkezleek.

ETB2. Julio Ibarra eta Uxue Barkosek 19:20ean hasiko dute saioa. EHUko irakasle Alfredo Retortilloren analisia entzuteko aukera izango da. 20:00etan, Ecocinsultingek eginiko galdeketa datuak emango dituzte.

TVE1. Asteburuko albistegi guztiak Bilbotik aurkeztuko dituzte Alfredo Urdacik eta Ana Blacok. 20:00etan Gallup enpresak eginiko galdeketa datuak emango dituzte. 22:30ak arte iraungo du saio bereziak.

A3. 19:30ean, Ernesto Saenz de Buruagak aurkeztuko du saioa. Gonbidatuak: Isabel San Sebastian, Esther Estevan, Victoria Prego, Alfonso Ussia, Miguel Angel Aguilar eta Javier Tezanos.

TELE5. 19:45etik 22:30era aurkeztuko dute saioa Angels Barcelo, Angeles Blanco eta Montserrat Dominguezek. Gonbidatuak Juan Carlos Vitoria, Justino Sinova eta Jose Luis Gomez izango dira.

IRRATIAK

RADIO EUSKADI. 19:45ean hasiko dute irratsaio berezia. Natalia Serranok eta Enrique Martinek aurkeztuko dute. Gonbidatuak Ramon Zallo, Arantxa Urretabizkaia, Imanol Zubero eta Ander Gurrutxaga izango dira. Ohiko kolaboratzaileen iritzia ere jasoko dituzte. Lau ordu-tako saioan alderdi ezberdinetako egoitzekin konexioak egingo dituzte.

EUSKADI IRRATIA. 20:00etan hasiko dute saioa. Tertulian Jose Antonio Rodriguez Ranz, Esteban Antxustegi eta Martin Garitano izango dira. Eskola batzuetan botoak nola kontatzen dituzten azalduko da. Eta bitxikeri moduan, Argentinako euskaldun batzuek hauteskundeak nola bizi dituzten kontatuko dute.

IPARRALDEKO EUSKAL IRRATIAK. Gure Irratia, Irulegi Irratia eta Xiberoko Botzan bihar goizeko 11:00etan emanen dituzte emaitzak, alderdie-tako ordezkarien iritziekin batera.

TAS TAS IRRATIA. 20:00etan hasiko dute saioa. Hogei minutuero datuak emango dituzte, beste lagun batzuk musika jartzen duten bitartean. Horretaz gain, hauteskundeetako metodologia azaltzen saiatuko dira, inkesta, sondeoa, estrapolazioa zer den definituko dute.